

Straight Pay



Gure lan – taldea Beñat Murillok, Leire Ojinaga-k, Amets Ibarrek, Patxi Suarezek eta Peio Vazquez-ek osatzen dute eta guk azken hamarkadetako asmakizun garrantzitsuenetako bat hobetu beharra dagoela erabaki dugu, erosotasun handiagoa izan dezan erabiltzaileak. Denok ezagutzen ditugu hiri edo herri handietan egoten diren parking pribatuak, eta gehienok askotan erabiltzen ditugu, supermerkatu batera, edo hiriguneetako merkataritza gunera joateko orduan. Denok askotan aparkalekuko sarreran dagoen makinatik tiketa hartzeko (tiketa hartu ondoren, automatikoki hesia igotzen den makina hura) kotxetik jaitsi behar izan garen bezala, besoa luzatuz ez garelarako makinatik ateratzen den tiketa hartzera heltzen. Honek konponbide bat behar du, milaka erabiltzailearen erosotasuna bilatzeko, eta gure lan taldeak ondorengo proiektu hau landu du horretarako:

Gure kotxea aparkaleku batera sartzean makinatxoak gure autoaren matrikula irakurri egingo du eta orduan hesia igoko da, bertatik gure kotxea igarotzeko eta ondoren hau aparkatu ahal izateko. Egin beharrekoak egin eta ondoren aparkalekura itzuli eta bertatik autoa ateratzeko gaur egun gure hirigunetako edozein parkingetan dagoen makinatik tiketa atera beharrean, makina horretan bertan gure kotxearen matrikula sartu eta pantailan ordaindu beharreko diru kantitatea agertuko da. Behin aparkaleku pribatuak eskainitako zerbitzua ordainduta , bertatik irten ahalko gara albo batean hesia duen makinatxoak gure matrikula berriz irakurriko baitu eta hesia berriz altxatuko baita. Ideia ona dela uste dugu, egitea posiblea baita gaur egun ditugu azken teknologia asmakuntzak kontuan izanik. Ez ginateke kotxetik tiketa hartzeko jaitsi beharko, beraz askoz erosoagoa izango litzateke dena, eta denbora irabaziko genuke. Hori gutxi balitz papera ere aurreztuko genuke, eta honek ingurumenari onura handia ekarriko lioke.

Laburpen moduan, proiektu honekin lortu nahi dituguzan hobekuntzak honako hauek izango dira:

- Papera gutxitzea
- Erosotasuna
- Denbora irabaztea
- Ingurumeneko kutsadura tasak murriztea